

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Izendapen askeko sistemari jarraituz Durangoko Udaleko Udaltzain ofiziala izendatzea.**

Tokiko Gobernu Batzordearen 2019ko apirilaren 9ko akordio bidez onartu ziren Durangoko Udalean udaltzain ofizialaren lanpostua izendapen askeko prozeduraren bidez betetzeko deialdia eta deialdiko oinarri-arauak.

Oinarri-arauak 2019ko apirilaren 30ean argitaratu ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta dagokion laburpena, 2019ko ekainaren 12an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Alkateak ondoko erabaki hau hartu eta deialdia ebatzi du, 2019ko uztailaren 29an emandako 1567 zenbakidun Dekretuaren bidez:

Lehen: Amaia Frontaura Sánchez andrea Durangoko udaltzain ofizial izendatzea, izendapen askeko sistemaren bidez egindako prozedurari jarraituta. Lanpostuaren Kodea 411 eta Azpikodea 3 2 da, eta lantokia Udaltzaingoa. Izendapenak 2019ko abuztuaren 1etik aurrera izango du eragina.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea ebazpen honen laburpena.

Durangon, 2019ko abuztuaren 1ean.— Alkatea, Sorkunde Garrastachu Urbaneja